



# GAUZA BEREZIAK



# Zubizareta

ARRASATE  
Zerkaosteta 8

BERGARA  
Ibargarai Hiribidea 4

*Ondo igaro Pazkuak!!*


## *Jai-giroan elkarturik!*

Egun hauetan,  
alaitasuna, poza, jolasa,  
ilusioak...  
gainezka dauzkagu.  
Herriaren zati bat  
garenez eta horrela  
sentitzen garelako.  
Herriarengandik hurbil  
egon nahi dugu.  
Horregatik bada,  
egun hauetan  
Jai-giroko Elkartasuna!

**Euskadiko  
Kutxa**



CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AURREZKIA



# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jaurlaritza

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal eta Edurne

Arenaza

Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

**Kolaboratzaileak:**

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Mariipi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK

### UDAL PELOTALEKUA

Bergarako Frontoia notizia iturri izan da azken egun hauetan, ez pelota partiduengatik, bertan antolatzen diren jaialdiengatik baizik.

Urteetan jaialdi ugari antolatu dira eta ez da inolako arazorik izan. Baina joan zen astean bi ekitaldi antolatu ziren: Anje Duhalderen kantaldia, ostiralean, eta herriko zenbait taldek eskeinitako ikuskizuna, larunbatean.

Udalak bi jaialdiatarako baimena emanda zeukan, baina Barne Saileko "Joku eta Ikuskizunak" en izenean idazki bana luzatu zien Ertzaintzak, bi jaialdie-



tako antolatzaileei. Antza denez, frontoiak ez du jaialdiak antolatzeko gutxieneko baldintzarik betetzen (suteren bat egongo balitz, oraingo irteerak ez lirateke nahi-koak) eta horrela jaso zuen aktan Ertzaintzak.

### Jarraituko al dute Frontoiko jaialdiek?

## ITURRI ONETIK

### Uberako Eskola ez da itxiko

Aurten itxekotan zen Uberako Auzo Eskolak zabalik jarraituko du. Gain-gainean daukagun Erreformari begira, Hezkuntza Delegazioak itxeko asmoa azaldu bazuen ere, joan zen astean Alkateak eta Koldo Pereira Euskara eta Hezkuntza Batzorde buruak Delegazioko ordezkariekin egindako bileraren ondoren, gutxienez datozen bi ikasturteetan zabalik mantentzea lortu zen.

## ESAN DUTE

"Aurrekonturik ez da onartu ez EA-EuEk ez HBk ez dutelako nahi izan. Aurrekontuek badute berez, beste interes batzuren menpe jarri gabe ere negoziatzeko adinako garrantzia. Bestelako gai horiek planteatzea lizitoa izan liteke baina interes partikularrekoak dira".

**V. GALLASTEGI**  
EAJren bozeramalea  
Gipuzkoako Biltzar Nagusietan  
EL DIARIO VASCO

"Beti saiatu gara EAJri ikustarazten instituzioetako eguneroko bizitza HBrekin normalizatzeko premia, ez bait du zentzurik HBrekin Gipuzkoako aurrekontuak hitzartu nahi izateak eta gero, instituzioetan etengabe gure aurka erasoka aritzea".

**J.L. ELKORO**  
HBko bozeramalea  
Gipuzkoako Biltzar Nagusietan  
EGUNKARIA

## KIZKUR



**Illepaindegia Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



## ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua  
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

## Bergarako Udalaren aurrekontuak

Astelehenean, hilak 25, Bergarako Udal Bilkurak onartu zituen 1.992rako aurrekontuak.

Ez ditut nota honetan aurrekontu horiek zehatz-mehatz aztertuko, baizik eta, Plenoan bertan adierazitako hainbat gauza argitu nahi nituzke.

Alde batetik, Herri Batasunak bai bere emendakin orokorrean eta baita emendakin partzialetan ere, eta ondorengo interbentzioetan adierazten zuen bere ezadostasuna, alde batetik Udal Gobernu taldeak aurrekontuak egiteko eramandako garai eta prozedurarekin, eta, bestalde, esaten zuen ez dela egon aurrekontuak eztabaidatzeko denborarik.

"Kultura"ri dagokion neurrian, bi erara jakatu dugula adierazi beharrean gaude; Euskara, Kirolak, Kultur Zerbitzuak, Kultur Taldeak eta Gaztediari dagokien batzordeetan, bakoitzean, ez behin baizik eta hainbat aldiz aurkeztu dela batzordeari zegokion aurrekontua. Hezkuntzari zegokion aurrekontua izan da bakarra, batzordeetan eztabaidatu ez dena.

Bestalde adierazi beharrean gaude, alde batetik, batzordeetan hainbat aldiz aipatu eta eztabaidatzeko aukera egon eta gero, eta orokorrean eta "Kultura"ri (hau da, Hezkuntza eta Euskara, Kirolak eta Udal Kultur-Kirol Zerbitzuak; Kultur Ekintzak, Taldeak

eta Gaztedia), dagokion aurrekontuak eztabaidatzeko, maiatzaren 6an egin zela bilera bat.

Bilera honetan, ez zen HBko kide-rik izan, eta EAkoa bilera erdian irten egin zen, ezertxo ere adierazi gabe.

Bestalde harrিতuta utzi ninduen, Hezkuntza Batzordean Eusko Alkartasunako ordezkariak, Kontxi Irizarrek, aipatutako Udal Bilkuran adierazi zuenean, Bergarako Udal Gobernuak ez zuela Hezkuntza arloa behar bezala bultzatzen.

Bakarrik galdera bat egiten diot neure buruari: begiratu al dituzte hauek Bergarako Udaletxearen aurrekontuak?. Begiratu esaten dut eta ez aztertu. Zeren eta, bestalde, ezin daiteke adierazi Udal Gobernu Taldeak Hezkuntza arloan ez duela apostu garbirik egiten.

Bakarrik, eta Kontxi Irizar bera eta bere kideak lasaitzeko, bi datu: Bergarako aurrekontuetan onartu duela, alde batetik eta subentzio gisa zuzenki Bergarako Ikastetxeen artean banatzeko, 31 milioi pasa, eta gastu orokor eta inbertsio gisa, Hezkuntzarekin lotura zuzena duten partiden artean 44 milioi pezeta.

Beraz, non dago Udalaren Hezkuntzarekiko baztartzea?

**Koldo Pereira (Hezkuntza eta Euskara Batzordeko Lehendakaria)**

## Erdi ametsetan

Igandea, goizeko 4.30ak, ametsetik ametsera tiro-hotsak entzun ditut, esnatu eta leihora irten naiz nire begiak zarata-hotsa datorren lekurantz, Komenio kale inguruntz, zuzenduz. Erdi lotan erdi esna nagoen bitartean, zenbait ideia eta imajina datozkit burura.

Hemendik ez dut ezer ikusten baina susmatzen dut gaztetxearen itxierarekin zer ikusirik izan dezakeela. Oheratu naiz berriz eta ideia zurrumbilo batek hartu du nire burua.


Askok esango dute "badabilta berriz ere gazteak, ez dakit zer nahi duten".

Ez dut uste gazteek halakorik nahi dutenik ezta antzekorik ere. Uste dut mundu hobe bat nahi dutela benetan, gauzak egiteko beste era bat. Drogak? alkohola? esaten dute helduek, helduen negozioak; gerrak? helduen gauzak. Inondik ahal dugula, gazteen inizatiba guztiak dirijitzen, (deusezten, ez denean) ahalegintzen gara. Zeri diogu beldurra?

Hala doa gero mundu hau, helduen mundu hau. Apurka-apurka berriz ere lo hartzen ari naiz txori-kontuak entzunaz.

**X. A. Larrañaga**

Tiiira ba!



Josu Okina



## BERTSO AFARIA

• **Angiozarko Pagomendi**

Elkartean, Jardunek antolatuta, ostira-lean, hilak 12, gaueko 9etan Bertso Afaria honako bertsolari hauekin: *Millan Telleria* eta *Mikel Mendizabal*.

## ERAKUSKETAK

• **Bergara Hiria Argazki Lehiaketara** aurkeztutako hainbat argazki Kultur Etxean ikusgai ekainaren 14ra arte.

• **Simon Arrieta Zeramika Tailerreko** lanak Kultur Etxean ekainaren 14ra arte.

## FARMAZIAK

- **Larunbata 6:** Puy.
- **Igandea 7:** Puy.
- **Astelehena 8:** Guallar.
- **Asteartea 9:** Estella.
- **Asteazkena 10:** Mozos.
- **Osteguna 11:** Camacho.
- **Ostirala 12:** Puy.


## OGIA

- **Igandea 7:** Konde.
- **Asteartea 9:** Bolintxo.

## ZINEA

▼▼ **Jean-Jacques Annaud** (*El nombre de la rosa*) **Marguerite Durasen** nobela ezaguna pantailaratu du bere azken filmean. Indochinako paisaia zoragarriak 15 urteko neskatila europear bat eta txinatar heldu baten arteko amodioaren lekuko izango dira.

▼▼ **Jaime Camino** zuzendaria **Vittorio Gassman** aktore haundiaz baliatu da Guda Zibilaren erruz zatitutako familia katalandar baten istorioa kontatzeko. Ba al da etxeko zerbitzaria baino pertsonaia egokiagorik bertan gertatzen den guztia kontatzeko?




### EL AMANTE

Ostirala: 22.30  
Larunbata: 22.30.  
Igandea: 19.30, 22.30.  
Astelehena: 20.30.  
Asteazkena: 19.30.



### EL LARGO INVIERNO

Osteguna: 19.30 (Zine-kluba).



BERGARA Tfnoa: 76 25 99

## SOLANA

- Materialen errekuperazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak



Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA  
Tfnoa: Biltegiakoa: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09

# ELKAR

**Fotokopiak, enkuadernazioak,  
jendearentzako faxa, plastifikazioa eta  
planoen kopiak, FOTOPIAK KOLORETAN  
ZORIONAK eta jaiak ondo pasa!!**

Harruriaga 1, Behea, Tfnoa eta faxa: 76 58 16 BERGARA

## BERGARAKO UDALAK

ESKEINTZEN DIZU:

- ✓ Hezkuntza arautua  
Hezkuntza ez arautua: IMI, HHI,...
- ✓ Euskara ikasteko aukera:
  - Euskaltegia
  - UNEDen
  - Barnetegietan
- ✓ Kultur lan handiak zeureganatzeko aukera:
  - Liburutegia, Artxiboa, ...
  - Espektakulu handiak, antzerkia,...
- ✓ Soin zainketarako
  - Instalazioak: Kiroldegia, rokodromoa,...
  - Kirol Eskaintza: mota askotako gimnasia, tenisa,...
- ✓ Afizioak lantzeko:
  - Txontxongilo, dantza musika margoketa, abestiak, argazkiak, ...
- ✓ Dibertsioa:
  - Festak, bidaiak, ...

Hau dena horrela da Instituzioen, herriko Kultur Taldeen, Ikastetxeen, Kirol Kluben, Elkarteen eta norbanakoen borondate eta lanari esker.

Argibide gehiago nahi baduzu, dei 76 44 46 - 76 39 42 telefonotara



BERGARAKO UDALA



KULTURA ZERBITZUA



**□ Astialdia**

Udalak astialdiko ekintzak antolatu ditu 12 urtetik 14 urtera bitarteko neska-mutilentzat. Ekintza hauek, uztailaren 6tik 24ra izango dira, goizeko 10etatik ordubatera. Izen-ematea ekainaren 19ra arte egongo da zabalik Udaletxean eta 1.000 pta. balio izango du, dirulaguntzak eskuratzeko aukera ere eskeiniko delarik.

**□ Aldizkaria**

Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak bere aldizkariaren 7. zenbakia kaleratu du. Oraingo honetan, tratu txarrak, sexu bidezko gaixotasunak, emakume bati egindako elkarrizketa eta diska eta liburuen aholkuak aurki daitezke. Anbulategian eskura daiteke.

## Literatur Lehiaketako sariak banatuko dira igandean

Igandean, eguerdiko 12etan banatuko dira Zabalotegipeko antzokian VIII. Euskarazko Literatura Lehiaketan sarituta-ko lanak.

Euskara Zerbitzuak aditzera eman duenez, kategoria ezberdinetan 300 lan inguru aurkeztu dira (iazko antzera) eta, epaimahaikoen eritziz, lanen maila hobetu egin da, saridunen artean lan bikainik ere badagoelarik.

Antolatzaileek ordenarik eman ez dute arren, ondoko koadroan talde bakoitzeko saridunak agertzen dira. Saritutako guztiek sari bana jasoko dute igandean eta, aurreko edizioetan bezala, Euskara Zerbitzuak lan onenak bilduko dituen liburuxka bat argitaratuko du.

### Sarituak

**Lehen Taldea (1.984-85.ean jaioak):**

Iñigo Albistegiren "Itsasoko mamua", Nerea Lekuonaren "Txakurra eta katua" eta Xabier Erdabideren "Katua eta arrantzalea".

**Bigarren Taldea (82-83):**

Ignacio Dovaoren "Hodei Tripontzia", Eneritz Muguruzaren "Ilargira joan zen tximeleta" eta Maite Azkarate-Askasuren "Txori, txindurri, basoko hartzatxoa".

**Hirugarren Taldea (80-81):**

Jon Alvarezren "Huskeria batenganako sentimenduak", Oihan Vegaren "Putzu majikoa" eta Maite Larrañagaren "Martintxo eta Kuxkux".

**Laugarren Taldea (77-79):**

Soraia Alonsoren "Itxuraldaketa", Larraitz Madinabeitiaren "Zutaz gogoratzen naiz" eta Julen Larrañagaren "Black".

**Bostgarren Taldea (72-76):**

Leire Ibarzabalen "Antzerki bat", Irene Murgiondoren "Gau beltzen barrena" eta Oier Bolibarren "Txoriek zergatik egiten dute hegaz".

**Seigarren Taldea (1.971.etik aurretikoak):**

Jon Altunaren "Bihurgune arriskutsua", Martin Gallastegiren "Bularpeko oreina", J.L. Mendizabalen "Agnes", Natalio Juaristiren "Izarreko Leontzioren larrialdia" eta Roman Uriarteren "Txe".

## Emakumeen osasuna

Jende ugari bildu izan dute Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak antolatutako *Emakumea eta Osasuna* ihardunaldiek. Batez ere emakumearekin lotutako gaiak izan badira ere aztergai, gizonezkoen presentzia faltan bota izan da, debateetan planteatutako zenbait gairi beste ikuspuntu bat emateko. Emakumeek gai ezberdinak jorratu dituzte eta Virginia Imazek umorezko parodia batzuk ere eskeini izan ditu kontrapuntu modura. Antolatzaileetako baten esanetan, "*jendea benetan gustora irten da hitzaldietan entzundakoa-ekin. Oso positiboa izan da beren erantzuna*".



# MEKOLALDE Taberna-k

## Zorionak opa dizkio bere bezero

### guztiei!!

Tfnoa: 76 50 18

MEKOLALDE

# JUANA

## Denda

### Jaigiroan igaro Pazkuak!!

Zubieta 38, Tfnoa: 76 16 13

□ **Bertso afaria**

JARDUN Elkarreak bertso afaria antolatu du datorren larunbaterako, hilak 12, Angiozarreko Pagomendi Elkartean, Mikel Mendizabal eta Millan Telleria bertsolarien partaidetzarekin. Izena ematea bezperara arte egongo da zabalik JARDUNen eta 2.000 pta. balioko du.

□ **Inaguraketa**

Ekainaren 28an herrian izango den XIX. Haurren Egunean dantzari txikirik etxean bazkaltzeko prest dagoenak Aranzadi Ikastolara (76 26 76) dei dezake.

□ **Bariantea**

Osintxuko bariantearen Soraluze alderako irteeran egin izan diren lanak amaitu dira. 89 milioi pta. rekin, lehengo kurba arriskutsuak bisibilitatea irabazteko zubi azpitik paso berri bat egin da.



**Lorategia Irizarren**

Aste honetan hasi dira Irizar Jauregiko lorategia txukuntzeko lanak. Lorategi honek 3 parterre edo zona izango ditu eta tartean zenbait pasealeku egongo dira. Udalak espazio publiko bihurtu nahi du lorategia eta bertan ezinbesteko zuhaitzak, bankuak eta iturria ere ez dira faltako.

Behin lanak amaitu ondoren, egunez baka-rrik egongo da zabalik; Kruz Gallastegi kale aldera ate bat jarriko da eta horma atearekin bat egin arte luzatuko da. Horrela, bi ate izango dira: aipatu-

tako berria eta orainarte itxita izan den Gasparren alboan dagoen bestea.

Azken urteotan nahiko baztertuta egon denez, iazko abenduan Udalak erabateko itxuraldaketari ekitea erabaki zuen. *Construcciones Artzamendi* enpresak burutuko dituen lan hauek 7 milioi terdi pta. inguruko aurrekontua izango dute eta, berdeeguneekin loturik, gogoratu Rekalde eta Usondoko berrikuntzak eta Unzeta Ruiz de la Pradako parkea direla Udalaren berehalako proiektuak.

□ **Pol-Pol**

Jaietan zehar salgai jarriko dira zenbait postutan Pol-Pol Mendizale taldeak Himalayara espedizioaren finantzaketan laguntzeko atara dituen kamisetak. Kamisetak 1.000 pta. tan salduko dira eta, horrez gain, dirulaguntza bere kontu eman nahi duenak, Kutxako 10112605 kontu zenbakian egin dezake. Kike De Pablos eta Jon Lazkano Himalayan dira dagoeneko Trangoko Dorreen eskalatzeari ekiteko prest..

□ **San Martzial**

Uztailaren 5ean ospatuko den San Martzial egunerako Udalak mahaiek jarriko dizkie interesatuei. Aurretik izena eman beharko da Kultura Zerbitzuan, zenbat pertsonendako behar dituzuen zehaztuz.

**ELKAR** 

**ELEKTRAGINTZA**

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA

**Zubiberri**  
*Sagardotegia*

- Eguneko menuak
- Kazuelitik

San Anton, Tfnoa: 76 41 06

N  
i  
n  
i  
k  
a

Loreak mundu osoan



INTERFLORA

ZORIONAK, eta jai zoriontsuak pasa!!

L  
o  
r  
a  
d  
e  
n  
d  
a





## Istiluak larunbatean

Joan den larunbat gauean Ertzantzak J.A.A. eta A.B.E. 19 urteko gazte bergararrak atxilotu zituen Irala kaleko telefono kabina bat haustearen akusaziopean. Dirudieenez, Ertzantzaren arabera, gazteek kabina hautsi zuten hormigoizko soporte batzurekin eta alkoholarean eraginpean zeudelarik.

Goizeko 4rak aldera kale horretan entzun ziren zarataren ondorioz, patruila bat aurkeztu zen inguru horretan. Aipatutako bi gazteekin gurutatu eta J.A.A. atxilotu

zuten ertzainek, A.B.E.k hanka egin zuen bitartean.

Handik gutxira Gaztetxera jo zuten ertzainek A.B.B.ren bila. Antidisturbioen furgoneta bat etorri eta zenbait gomazko pelota jaurtiz han bildutakoak sakabanatu zituzten. Handik minutu gutxira A.B.E. atera zuten lokaletik eta Ertzantzaren basera eramane zituzten bi gazteak. Diligentzia guztiak egin ondoren, Bergarako Guardiako Epaitegiaren ardurapean geratu ziren.

## Txinpartak

✓ **Ricardo Azkargorta** bergararraren margo erakusketa uztailaren 4ra arte egongo da zabalik Madrilgo *La Kabala* arte galerian.

✓ **0067** zenbakia saritua izan da Toki-Ederreko jaietako zozketan. Zenbakiaren jabeak mendiko bizikleta bat irabazi du.

✓ **Zipristinak** aldizkariaren 8. zenbakia kaleratu da dagoneko. Bertan, igeri elkartearekin loturiko hainbat berri jasotzen dira.

✓ **Herri Batasunak** eskerrak eman nahi dizkie amaitu berri den *Urrats Berri* prozesuan parte hartu duten guztiei.

✓ **Panti** eta Salto del Negroko espetxean diren beste euskal presoek bukatutzat eman dute aspaldi honetan mantendu izan duten gose eta egarri greba.

✓ **Igerilekuak** itxita egongo dira larunbatetik asteartera arte Bergarako jaiak direla eta.

✓ **Kultur Etxean** berriz, erakusgela bakarrik egongo da zabalik, eguerdiko 12etatik ordubietara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

✓ **JARDUN**en haurrentzako hurrengo bideo-emanaldia jai ostera arte, ekainaren 12ra, atzeratu da.

✓ **In fraganti** antzeslana aurkeztuko da larunbatean, gaueko 10.15etan, Antzuolako zine-aretoan.

# YAZZKI

## UME

Festa giroan pasa  
Pazkuetako jaiak!!

Irizar 3  
Tfnoa: 76 16 54

## GAZTE

Neska eta Mutil

Ibargarai 8  
Tfnoa: 76 54 73

## TOKI-EDER

### Taberna

Pintxoak eta  
eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

## KONDE

### PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

# Ermita eta nekazari bizitza

**E**rmitak auzoetako bizitzak, eta nekazari kulturak lokera berezia eta ikusgarria izan dute. Auzo batean izaten diren gaiak eta erakundeak hoietxek dira: bideak eta zubiak, errotak edo boluak, bolategiak, ganadu eta beste zenbaitetarako hermandadeak, eta batez ere Aintzadun Santua etxe horietako "babestaile berezia", San Antongo liburu zaharrak dionez.

Ermitak nekazariaren erlijio eta kulturarekin bat eginik egon dira; horrela, Bergarako ermiten Santuak loreetan, armarietan eta eguneroko bizitzan ugari azaltzen zaizkigu. Adibide gisan aipatu ditzagun izen eta esaera batzuek:

San Jose Lorak  
San Bartolome okanak  
San Bartolome sagarrak  
San Juan okanak  
San Juan sagarrak

San Bizente hotza  
Neguan bihotza

San Blas ta Kandelarixo  
Haitzari ura darixo

Santamaña madarixa  
Santiago sagarra  
Sanmatei sagarra  
San Blas opilla

San Migelen zaragixa

San Estebantxe  
Lehen bastetxe

Horiek denak badi-  
tuzte beren ermitak, San-  
tamaña berriz, eliza da.  
Lehen esandakoak ez





San Anton Abad

goaz berriro idaztera, baina ermitak nekazari kulturaren eta bizitzan zer mailetaraino sartuak egon diren adierazteko azpimarkatu ditzagun batzuk: ganaduari eta beste egite

batzuri ermita inguruan dauden "hermandadeak", kanpaiak bere esanekin, auzolanak, jaiak eta abar.

*Imanol Sorondo*



Ane Miren Alberdi

**PRESOAK EUSKADIRA  
MANIFESTAZIOA**

Eguerdiko ordu 1etan Herriko Plazan




## Alkatearen agurra

Egun hauetan gure arteko zurruburuak eta eguneroko ardurak alde batera utziko ditugu, aintzinatik datozen Pentekoste jai jator hauek eskaintzen diguten jai-giro horretan sartzeko ahal den begikotasun haundienarekin, herritar eta atzerritarrak elkar daitezen urtero bezala festa atsegin batzuk ospatzeko.

Jai hauetan gogo bero bat izan dezagun herri barruan eta kanpoan bai bategatik edo besteagatik sufritzen ari direnentzako, eta orobat, norberaren bizitza gainerakoei ematen dietenentzat egunez egun. Eta, nola ez, gurekin egon nahi eta ezin dutenentzako.

Festa alai, lagunkor eta paketsu batzuk igaro ditzazuela opa dizue zuen Alkateak

VICTORIANO GALLASTEGI




**PAZKUAK 92**  
*Bergarako jaizak*

Erretratuak: Pol-Pol Argazki Taldea



## Levi'sek baimendutako denda



# CRISTINA

Harruriaga z/g Tfnoa: 76 03 04 BERGARA

*Cristinan* era guztietako moda bakeroa!  
Levi's • Caroché • Bonaventure

# EGUZKITZA ERRETEGIA

Gure berezitasunak: Eguneko menua, haragia eta arrainak

**EKAINAREN ERDI INGURUTIK, MENU BEREZIA:**

- ✓ Makailo Tortila
- ✓ Saihetskia
- ✓ Arrosesnea, gatzaTua,...
- ✓ Ardoa edo sagardoa

1.750  
pzta.

• IGANDETAN ITXITA

• Eguardi eta gauetan urte osoan

Harane Erreka 30

Tfnoa: 76 56 03

BERGARA

Urtero-urtero jaien ailegerarekin programaren inguruan eztabaida zorrotzak izaten dira. Betikoa antolatu dela, ez dagoela ezer berririk, jai eskaxak direla... Haurrentzako, gazteentzako, helduentzako eta zaharrentzako antolatu diren ekitaldiak, gain-gainetik bada ere, aipatzen ditugu jarraian eta programari buruzko herritar batzuren eritziak jaso ditugu.

**PAZKUAK 92**  
Bergarako jaiak

N o n Z e r

# Adin eta gusto ezberdinetako aukerak

## San Martin Plaza

jaietako ekitaldirik garrantzitsuenen kokagune bilakatuko zaigu: bertan emango zaie hasiera eta bukaera aurtengo pazkuei,

## Bitorianatxoren

jeitsiera eta igoerarekin; dantzaldiak, sokamuturrak, herri festak, haur jolasak, dantza saioak, arte martzialen erakusketak, suzko zezenak, etab.



## Neska-mutikoentzat:



### ✓ Marrazki eta margo

**lehiaketa** Plazan, larunbatean 9etan.

### ✓ Takolo, Pirrutex eta

**Porrotx** pailazoak, larunbatean 17.00etan Plazan.

✓ **Buruhaundiak** 19.30etan, larunbatean ere.

✓ **Jolas parkea** Seminarioan astehenean, 16.00etan.

✓ **Barrakak** 25 pta.tan, astehenean, 11.30etatik 14.00etara.

✓ **Herri trenaren** ibilera asteartean 11.30etan eta 17.00etan hasita.

## Festibal gehiago

Aurtengo programa nahiko ondo dago.

Neri gehien gustatzen zaidana Bideberriko festibalak dira, eta batez ere astehenean egongo dena, Soziedad Alkoholikarena alegia.

Fucking What eta Daxka bergararrak ikusteko ere, gogo haundia dut.

Hala ere kaleko ikuskizun gehiago antolatuko nituzke, esaterako, kale antzerkiak. Gero zezena ere asko gustatzen zait eta uste dut egun guztietan jarri behar zutela.

Aitor Aldanondo, 14 urte

# GOIERRI

## Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

# LARREA


## TABERNA

Kale Barren 17  
ANTZUOLA



Bideberrin jarritako txozten inguruan bilduko da batez ere gaztedia. Aurten iaz baino gutxiago jarri dira: iaz bost txozna jarri baziren ere, aurten bi bakarrik eraiki dira.

## Gazteentzat:



Jardun  
Elkarteak  
antolatutako  
Brusa  
Lehiaketara  
aurkeztutako  
brusa, argazki,  
eta esaldi  
guztien  
erakusketa  
asteartean  
eguerdiko  
12.00etan. Sari  
banaketa  
arratsaldeko  
18.30etan  
(Simon  
Arrietan).

## Gatz falta

Egia esan off-side harrapatzen nauzue, aurtengo jaien egitaraua ez bait dut oraindik ikusi ere egin. Kontuak-kontu, lagunei entzun diet, beste urteetakoaren antzerakoa omen dela. Beti berdina jartzen dute. Jaietako programei gatza falta zaiela uste dut, horregatik normalean ikusten ez direnak antolatu beharko lirateke. Nik strip-tease saioa antolatuko nuke plazan, goizaldeko hiruretan, martxa pixkat jartzeko.

Fernando Sanchez 28, urte

✓ **Herri festa Los Incansables** txarangak alaituta **asteartean** arratsaldeko 18.30etan San Martin Plazan.

✓ **Balsa Jeitsiera Deba Ibaian** (Beheko Estazioko zubitik Santa Marinkoraino), arratsaldeko 20.30etan, Eguzkik antolatuta.

P. MANSO

Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa; 76 27 86

JUBILATUEN  
TABERNA

• **Bazkari eta afariak**

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

## Helduentzat:

✓ **Caribe Nibor** kubatarren emanaldia ostiralean gaueko 23.00etan pelotalekuan.

✓ **Las Veneno** taldeak umorezko antzelana eskeiniko du **larunbatean** gaueko 22.30etan **Mariaren Lagundiko antzokian**.



Las Veneno hirukoteak Ferran Rañek zuzenduriko "Veneno pá ti" lana antzestuko du

## Kanpoko ikuskizunak

Aurtengo jaietako programari gainbegirada bat eman diot eta beste urteetakoekin konparatuz, bi nobedade bakarrik somatu ditut: Futbolin Txapelketa eta Gaueko Zinea. Bestelakoan, aurreko urteetakoaren antzekoa dela iruditzen zait. Nik, normalean ekartzen ez diren ikuskizunak programatuko nituzke, hala nola: antzerki saioak eta beste eratako espektakuloak, baina kanpotik ekarritakoak. Eta ez nuen egun bakar batez programatuko, hiruzpalau egunetan baizik, eta egun bakoitzean ikuskizun ezberdina. Orain dela 30 bat urte egiten zen eta oso ondo zegoen.

**Patxi Berraondo, 45 urte**

**PAZKUAK 92**  
*Bergerako jaiak*  
**N o n Z e r**

## Zaharrentzat:

### Musika festa

Musikarako zaletasun handia daukat eta alde horretatik programa ondo dagoela uste dut, era ezberdinetako musika biltzen duelako.

Batez ere gizonezkoentzako bada ere, Pazkuetan antolatzen diren pelota partiduak oso onak izaten dira eta hori ere azpimarratuko nuke.

Hala ere Estampa Lehiaketa ez egoteak pena handia ematen dit, aurten ere saiatu dira antolatzen baina jendearen erantzuna ez da oso ona izan eta pena bat da, antzinan egiten zenean oso polita izaten zelako.

**Lide Oregi, 54 urte**

✓ **Espaloiko dantzaldiak** dira edadetu gehien erakartzen dituen ekitaldiak. Zumardiaren inguruan, pasodoble, tango, etabarrak dantzatzeko aukera izaten dute gure guraso eta aitonek. **Igandean**, gaueko 23.00etan **Tarantelak** alaitutako dantzaldia **Espaloian** eta **astelehenean**, berriz, **Nueva Alaskaren** dantzaldia **San Martin Plazan**.

Tarantela taldeak alaitutako dantzaldia astelehenean Espaloian.



**SURPE**  
**Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
**ANTZUOLA**

**FANCY**  
**GAZTEEN MODA!** Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

# PAZKUAK 92

Bergarako jaizak

## Jaietako Musika

Musika izango da jaietako protagonistetako bat. Izan ere adin eta gusto guztietarako musika emanaldiak izango dira, bai Plaza zein Espaloian iragarri diren dantzaldien barne eta baita Bideberriko rock kontzertuetan ere. Hemen erakusten dizkizuegu aukera nabarmenenak.

### Ostirala 5



✓ **Izadi** taldearekin dantzaldia **San Martin Plazan** gaueko 23.30etatik goizaldera arte. Mireia Osinaga bergararra dugu talde zarauztarraren ahotsa.

✓ **EH Sukarra, Fukcing What** eta **Requiem** taldeek rock kontzertua eskeiniko dute **Bideberrin** gaueko 23.30etan hasita.



◀ Poti, Kapi, Gorka eta Elorza: **Fucking What**. Metallica, Antrax eta AC-DC taldeen bertsioz osatutako errepertorioa

✓ **Caribe Nibor**, Cubatik zuzenean etorritako taldeak saltsa, merengea, boleroak, cha cha eta beste zenbait erritmo beroz betetako 3 ordutako emanaldia eskeiniko digu **gaueko 22.30etatik aurrera Pelotalekuan**.



▲ **Requiem**, Martin, Aitor, Bernar, Jose, Ziru eta Celsok osatzen dute. Argazkian Celso eta Bernar, taldekide berriak, falta dira. Iaz SP izenaz ezagutzen ziren.

### Larunbata 6



✓ **Diana**, goizeko 10.00etan herriko auzo eta kaleetatik zehar, honako hauek alaituta:  
- **Iosu** eta **Iokin** soinu-joleek Bolu auzotik zehar.  
- **Kobok** dultzainero taldeak Labegaraietan  
- **Udal Txistulari Bandak** Oxirondo aldean.

✓ **Trikitilari, Dultzainero** eta **Txistulariek** eskainitako jaialdia **San Martin Plazan**, eguerdiko 12.30etan.

✓ **Udal Txistulari bandak** eta **Kobok** dultzaineroek alaitutako **kalejira** arratsaldeko 19.30etan.

**ORTZI**  
Erretegia  
ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

**ONENA**  
TINDATEGIA  
Barrenkale 29, BERGARA

**LARRAÑAGA**  
eta **ZUBIA**  
Banatzaileak  
Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, Iejak  
Martokua 32, tfnoa: 764594





▲ Imanol, Valen, Ibon eta orain dela hilabete batzuk kitarrajole sartu den Berasak osatzen dute **Spok** taldea. Rock & roll gau beroa eskeiniko digute **Los Clavos** bilbotarrekin batera.

✓ **Los Clavos** eta **Spok** taldeekin rock jaialdia Bideberrin gaueko 23.00etan hasita.

✓ **Gau Bela** taldeak alaitutako dantzaldia San Martin Plazan gaueko 23.00etan.

## Igandea 7

✓ **Udal Txistulari Banda**rekin alborada goizeko 9.00etan.

✓ **Udal Musika Banda**ren kontzertua Espaloian, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, eguerdiko 12.30etan.

### Programa:

- *Internus et externus* martxa (J. Evenepoel).
- *Der Freischutz* obertura (C.M. Von Weber).
- *Dimensions* sinfonia estudioa (P. Graham).
- *La isla de las perlas* selekzioa (P. Sorozabal).
- *Chansons d'amour* (W. Shanklin).
- *Comediano's galop* (D. Kabalevsky).

✓ **Musika Eskolako fanfarriak** eta **Kukuma** hankaluze taldeak alaitutako kalejira arratsaldeko 20.30etan San Martin Plazatik irtenda.

✓ **Tarantela** taldearekin Kanp dantzaldia Espoloian gaueko 23.00etan hasita.

## Astelehena 8

✓ **Udal Musika Banda**ren kalejira goizeko 11.30etatik aurrera.

✓ **Udal Musika Banda**ren kontzertua eguerdiko 12.30etan Espaloian.

### Programa:

- *Udaberriko txoria* martxa (A. Gz. Chirlaque).
- *La bella galathea* obertura (F. Von Suppé).
- *A highland rhapsody* (J.V der Roost).
- *El Barberillo de Lavapiés* selekzioa (Barbieri).

✓ **Los Incansables** txarangak alaitutako kalejira arratsaldeko 20.30etan.

✓ **Nueva Alaska** taldearekin dantzaldia San Martin plazan gaueko 22.30etan.

✓ **Soziedad Alkoholika** eta **Daxka** Bideberrin gaueko 22.30etan.

Iban, Unai, Mikel eta Iker: **Daxka**.

Hard corea dute gustoko eta hard core eta rap erritmoak nahasten maisuak diren

**Soziedad Alkoholika** gasteiztarrekin batera joko dute.



## Asteartea 9

✓ **Xafre** eta **Zaharra** eta **Iosu** eta **Iokin** trikitilari bikoteek egun osoan zehar kaleak alituko dituzte.

✓ **Los incansables** txarangak alaitutako kalejira arratsaldeko 18.30etatik aurrera.

✓ **Egan** taldearekin dantzaldia San Martin plazan gaueko 23.00etan hasita.

# Grazian

## Usanindegia • Merzeria

### Jaixetan ondo ibili!

Bidekurutzeta 6, Tfnoa: 76 10 25 BERGARA

# BERGARA

## Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubieta 46  
Bergara

# PAZKUAK 92

Bergarako jaizak

## Jaietako Kirolak

Jaietan antolatzen diren kirol saioak bere garrantzia izaten dute programan. Aurten, ohizkoa den bezala pelota jaialdi izugarriak iragarri dira pazkuetarako. Horiez gain, aipamen berezia merezi dute larunbatean izango den Euskadiko Sokatira Txapelketa; igande goizeko Bergara Hiria Xake Txapelketa eta Txirrindulari lasterketa; Arku Tiraketa, Eskolarteko Jokuen finalak, Futbolin Txapelketak...



### ✓ Pazkuetako Pelota Partiduak.

#### Larunbata (arratsaldeko 16.30etan):

- Bengoetxea IV.a eta Urra-Alustiza eta Santi.
- Salaberria eta Errandonea-Eugi eta Arretxe (Pentekoste Txapelketa)
- Satrustegi eta Andueza-Tolosa III.a eta Garaita.

#### Igandea (arratsaldeko 16.30etan):

- Soroa III.a eta Berna-Arretxe eta Salbidea.
- Retegi II.a eta Maiz II.a-Etxaniz eta Zezeaga (Pentekoste Txapelketa).
- Urzainki eta Alberdi III.a-Murga eta Andueza VI.a.

#### Astelehena (gaueko 22.45etan):

- Muntion eta Santi-Zabala eta Urra.
- Bergara II.a eta Martirikorena-larunbateko galtzaileen aurka.

#### Asteartea (arratsaldeko 16.30etan):

- Ansotegi eta Retegi IV.a-Ariznabarreta eta Aldazabal II.a
- Txapelketako finalak.
- Telletxea eta Garaita-Gabilondo eta Andueza VI.a

### ✓ Eskolarteko Jokuen Finalak.

Bergarako ikastetxe ezberdinetako haurren arteko txapelketetako finalak jokatuko dira **larunbat goizean** honako toki hauetan: **San Martin Plaza** (futbito), **Seminarioa** (saskibaloia) eta **Agorrosin** (atletismo frogak).

### ✓ Euskadiko Sokatira Txapelketa Lurgainean

jokatuko da **larunbatean**, arratsaldeko 17.30etan **Agorrosinen**.

### ✓ Txirrindulari Lasterketa:

1. go eta 2. mailako afizionatuentzat **LVII. Pentekoste Saria** jokatuko da **igandean** goizeko 9etatik aurrera.



### ✓ Bergara Hiria Xake Txapelketa

igandean goizeko 9etan hasita Udaletxeko Pleno Aretoan.

### ✓ Futbolin Txapelketa (astelehenean):

- 15 urtera artekoentzat, arratsaldeko 16.00etatik 20.00etara.
- Binakakoak (nagusientzat), arratsaldeko 20.00etan.
- Banakakoak (nagusiak), goizaldeko ordu 2etan.



FOTOKOPIAK - ENKUADERNAZIOAK

LIBURUDENDA

**Jaiak ondo pasa!!**

San Lorentzo 23, Tfnoa: 76 58 28

Taberna Kafetegia

**EHIZTARIAK**

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA

**BERGARA**

**EROSLE //**

***Hurbilena eta freskoena***

**Toki Eder  
autozerbitzua**

Tfnoa: 76 36 00  
Mintegi

**Basal  
autozerbitzua**

Tfnoa: 76 21 66  
Matxiategi 7

**Millan  
autozerbitzua**

Tfnoa: 76 43 00  
Koldo Eleizalde 3

**Mazorriaga  
autozerbitzua**

Tfnoa: 76 12 25  
San Pedro 21

**Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!!**



**Ordutegia:**

- Goizeko 8etatik gaueko 12etara
- Aste Bukaeretan gaueko ordu biak arte

**KAYAK**

**Gure berezitasuna:  
ZERBEZAK**

Gosariak-Pintxoak-Ogitartekoak-  
Kazuelatxoak- Plater Konbinatuak

Bitorianatxo bezain puntual heltzen dira jaien usainean. *Paisak*, kaleko dendariak eta, nola ez, barrakak. Azken hauek dira hurrei eta nagusioi ere jaiak gainean ditugula iragartzen digutenak.

Jaien usainean  
etorriak

# Barraken ilusioa


Urteroko zitari huts egin gabe, jaiekin batera barrakak datozkigu, haur eta nagusien gozamenarako. Aurten ere hemen ditugu jadanik auto-txo-keak, noria, ten txu-txua, zig-zaga..., eta beste hainbat atrakziño. Betidanik, herri guztietako jaietan poza zabaltzeaz arduratu izan badira ere, Alberto Dominguez Euskadiko Feriariari Autonomoen Elkargoko idazkariak esan digunez, "**krisi ekonomikoak eragin nabaria izan du gudan. Udalak, iaz bezala, 3.700.000 pta. kobratzen dizkigu okupatzen dugun espazioarengatik eta guk, beste tarifa gehienak nahiko igo diren arren, barraketan iazko prezio berak mantentzen ditugu, 100 pta. atrakziño guztietan**".

Bergara bezalako herri batek 25 familia, 100 pertsona inguru eta barrakak, taberna, tonbola eta

gainontzeko kaxetak zenbatuta, 25 postu hartzen ditu jaietan. Zirkoarentzera, gogorra da bertan lan egiten duten guztien bizitza. "**Hala da, seme-alabak etxean uzten ditugu eskolara joan behar dutelako eta astebukaerara arte ez gara beraiekin elkartzen. Oso sakrifikatua da. Hala ere, baldintzak asko hobetu dira azken urteotan**".

## Lanbide gogorra

Herriz herri, jairik jai, herri guztietan ondo hartzen dituzte, bereziki 8 urtetik 14 urtera bitarteko neska-mutiek. Hauek dira, hain zuzen ere, benetan disfrutatzen dutenak, gehienetan gurasoen laguntzaz. Barraka batek bestera saltoka, gurasoak zoratzera heltzen dira. "**Historikoki, Bergara, inguruko tokirik errentagarriena izan da. Nere familiak 20**



urte inguru daramatza hona etortzen eta orain 10 urte, esate baterako, jaiak amaitu eta beste 15 egun gehiago geratzen ginen. Gaur egun hori ez da posible".

Eguraldiaren arabera ere emaitzak oso desberdinak izaten dira; "**arrantzaleen antzera ibiltzen gara; euria edota oso egun eguzkitsu bat egiten badu, jai**". Barrakei dagokienez, ez da diferentzia haundirik gaur egungo barraken eta aintzinakoen artean. "**belaunaldiz belaunaldi pasatzen dira inolako arazorik gabe. Peli-**

**kulak bezala, lehenbizi kapitaletan eta ondoren herrietara pasatzen dira**".

Negoio familiarra aldiz, orain ez da gurasoetatik seme-alabetara hain errez pasatzen. "**Gure seme-alabek aukera gehiago dituzte ikasteko eta errezenera jotzen da gaur egun. Ez dut uste lanbide honetan jarraituko dutenik...**". Bien bitartean, beraiek gaztetxoei ilusioa piztu eta gainontzekooi haurtzarorako bidia nostalgiko bat eskeintzen digute. Ez da gutxi!!



Mugartzako aldapa,  
San Lorentzo 7,  
Tfnoa: 76n 50 39

AKORT-en zeure estilo propioa sor dezakezu.

**ETA HONEZ GAIN**  
LASER KOLOREZKO FOTOKOPIAK eta  
NEURRI EZBERDINETAKO POSTERRAK.

**Irudi bikaina eta prezio ezinobeak.**  
**Zure zain gaude**

**Aldoka**  
**Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA



**PAZKUAK 92**  
Bergarako jaizak

Musikaz blai



# Mikel Herzog eta La Duda

## GOGOR LANEAN ETA OSPEAREN BILA

Mikel Herzog eta La Duda taldea, proiektu berrietan buru-belarri murgilduta ditugu. Lehenengoa aski ezaguna dugu: Bergaratik Madrilera alde egin zuenetik punta-puntako taldeetako kide izan da, eta La Decada

Prodigiosa utzi zuenetik ez dugu bere lanaren berri izan. Hala ere, bakarleri gisa grabatu duen diskoa irailerako kalean izango da. La Duda taldeko Fran Iturbe eta Koldo Lizarralde, bestalde, gogor ari dira entsaiu lokalean eta uztail aldean Euskal Herriko hiriburuetan zuzeneko kontzertuak emateko asmotan dabilta.


**M**ikel Herzogi, gazte-gaztetatik somatzen zitzaion musikari izateko jaioa zela. 15 urte zituenean, Bergarako Lanbide Heziketa Es-

kolako beste lagun batzuekin batera, Sigris taldea sortu zuen. Harrezkero, Corch, Udaberri, Nekez, Alcatraz, Mikel Herzog & Ebano, Cadillac

eta La Decada Prodigiosa taldeetako kide izan da. Tartean, garai batean berbenatan aritu zen Seska bergarar taldeko Fran Iturbe eta Aitor Ga-

llastegi eta Orquesta Mondragonen ibilitako beste zenbait musikarekin batera, ustela gertatu zen saiakera ere egin zuen.

32 urte ditu eta orain dela urtebete inguru La Decada Prodigiosa utzi zuen. Orditik ez dugu bere lanaren berri izan: "Magneto mexikar taldearekin produktore lanak egin ditut. Hemen oso ezagunak ez badira ere, Mexikon musika zerrendetako lehen postua lortu dute. Horrez gain, aurten Eurovisionera joan den Serafin Zubiriren arduradun artistikoa izan naiz eta grabatu berri



**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95



**ETXEBERRIA**

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA

duen diskoan produktore lanak egin ditut. Orain dela gutxi, *Zapato Veloz* talde galiarraren diskoa grabatzen aritu izan naiz".

Argi dago, azken hila-bete hauetan gelditu ere egin barik ibili zaigu. Aipatu ez dituen beste talde askorekin lan egin du eta telebista zein irratiko zenbait iragarkitako musika eta ahotsa bereak dira.

Baina ordu gehienak, bere lehen diskoa izango dena grabatzen eman ditu: "abuztuaren 20rako kalean izango da eta irailean promozioa egingo dugu telebista, irrati, egunkari eta aldizkari ezberdinetan. Orain bertan CBS diskaetxearen helburu garrantzitsuena naiz eta diskoa 17 herrialdetan plazaratuko da. Diskoaren tituloa, «*Vienvenidos al paraíso*» izango da".

## Mikel Herzogen lehenengo diskoa irailerako kalean izango da eta CBSren eskutik 17 herrialde ezberdinetan plazaratuko da.

Diskoa *The Police* eta *Umberto Tozziren* arteko nahasketa izango litzateke Mikelen esanetan, eta *Sergio Dalma*, *Nina* edota *Serafin Zubiri* adiskideen



Mikel Serafin Zubirirekin solasean

laguntza izan du estudioan.

### Madriletik zerura

Urte asko dira Mikel Madrilera joan zitzaigula. Euskal Herria txiki gertzen omen zitzaion eta estatuko hiriburura abiatu zen arrakasta eta ospearen bila.

zaigu eta; "musika merkatuaren koituntura aldeko zait, nere ustez aurtengoa bakarlarieen urtea izan delako; hor ditugu, esaterako, *Alejandro Sanz*, *Sergio Dalma* eta beste batzuk lortu duten arrakasta...".

Mikelek berak gustokoen dituenak bakarlariek dira. Goian aipatutakoez gain, *Phil Collins* eta *Sting* gustatzen zaizkio eta Euskal Herrikoetaz mintzatzerakoan *Duncan Dhu* eta *21 Japonesas* aipatzen ditu.

Madriren bizi bada ere, bere jaioterria ez du ahazten eta ahal duen bakoitzean Bergarara etortzea gustatzen zaio, "familia eta lagunak bisitatu eta elkarrekin kopa batzuk hartzea".

Aurtengo jaietan ere, urtero bezala, Bergaran izango dugu.

### La Duda ilusio haundiarekin lanean

**F**ran Iturbe eta Koldo Lizarralderen arteko elkarlanaren ondorioa da *La Duda*. Orain dela urtebete inguru ekin zioten lanari eta Zabalo-tegiko estudioan grabatutako 11 abesti biltzen dituen maketa da, euren fruiturik adierazgarriena.

Lantzen duten Pop-rock tankerako abestia, kitarretan oinarritutako soinu zaindu eta melodiotsua, Euskal Herrian egiten den rock gogorren ildotik aldendu egiten dira erabat. Horregatik, Euskal Herriko mugak zeharkatu eta Madrilera bidea hartu dute, estatuko hiriburuko diskaetxeetan beren lana erakusteko asmoarekin.

Egia esan ez dute

ATSEDEN ZENTRUA  
**LOKARTU**  
KOLTXOI-DENDA

Bideberri Ibiltokia z/G - Tfnoa: 76 05 01 BERGARA

**CAMACHO**  
DROGERIA  
USAINDEGIA

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35  
BERGARA

suerte haundiegirik izan. *Paco Trinidad* produktore ospetsuaren onespene eta interesaren berri izan dute baina besterik ez.

### Zuzeneko emanaldien zain

Orain dela bi hilabete inguru, *M-ak* taldeko bateriajolea den *Fernando Leiza*, eta *Tapia ta Leturiarekin* aritzen den *Jabier Artiega* bajoa, bildu zaizkie eta grabatu zuten maketan *Jo Ta Kiet* taldeko *Elortxak* abeslari lanak egin bazituen ere, hemendik aurrera Fran izango dugu *La Dudako* kantaria.

Zuzeneko emanaldien lehenbailehen ekitea da laukotearen asmoa. Orain arte birritan baka-

rrik jo dute: Bilboko Hiria Lehiaketarako lehena, eta joan zen ostegunean Bergarako Pol-pol tabernan, bestea.

Lehiaketak aipatu ditugunez, esan dezagun, Bilbokoan estatu osoko 255 talderen arteko 43 onenen artean aukeratu zituztela, *Euskadi Gazteak* antolatutako maketa lehiaketan akzesita lortu zutela eta une honetan, *Tele 5ko «La quinta marcha»* saioko lehiaketan parte hartzen ari direla. Orain dela gutxi, telebistan ikusi genituen aipatutako saioan eta benetan emanaldi ederra burutu zuten: "lehiaketa amaitzeko gutxi falta denean, lehenengo postuan aurkitzen gara. Dena dela beste emanaldi bat

egin beharko dugu, oraingoa zuzen-zuzenean. Irabazi ezkerok CBSekin diskoa grabatzeko aukera izango dugu" esan digute Fran eta Koldok.

Irabazi ala galdu, telebistako esperientzia behintzat, oso aberasgarria izan zitzaiea aitortzen dute: "primeran pasatu genuen, joan eta etorriko abioia eta bost izarretako hotelean egonaldia ordaindu ziguten, gero grabazioa ez zen batere astuna izan, ondo egon zen...".



La Duda. Ezkerretik eskumara: Fran Iturbe, Koldo Lizarralde, Fernando Leiza eta Jabier Artieda.

**PAZKUAK 92**  
*Bergarako jaizak*

**Musikaz blai**

### Elkarlanean

La Dudako Fran Iturbe eta Mikel Herzogen arteko lagunarteko harremanak aspaldikoak dira. Mikelek barkarlari ekitea erabaki zutenean, 80ko hamarkadako lehen urteetan, Frani deitu zion taldeko kitarrajole izateko. Saiakera hura ustela gertatu arren, eta ordutik bakoitzak bere bidea egin badu ere, garai bateko adiskidetasunari eutsi egin diote.

Gaur egun, bakoitza beren proiektuetan murgilduta aurkitzen dira, baina elkarrekin lan egin dezakete etorkizunean. Izan ere, Mikel Herzogek sortutako *management* enpresak egingo bait ditu hemendik aurrera *La Duda* taldearen ordezkari edota manager lanak.

Mikelek argi esan digu: "Fran eta Koldo ondo ezagutzen ditut eta harreman haundiak ditut batez ere Franekin, baina etorkizunean euren arduradun artistiko izateko prest banago ez da lagunak garelako, beren lanaren kalitatean sinisten dudalako baizik".

**NEREA**

Gizon-Emakumeen  
lenzeria moda eta  
bainujantziak

Simon Arrieta Enparantza 1

**LONBIDE**

OINETAKOAK

BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA





MARKA HONA, ETA ZERBITZUA, HOBEA

*Multisol Betaurrekoak.  
Bere prezioak bakarrik txundituko zaizu.*



**Kamiseta bat OPARI bezala!!**

Horrelakoak dira Multisol berriak:  
Erakargarriak, gazteak, puntakoak ...;  
zure modukoak. Aukeratu, ipini eta  
goza itzazu.

**1.500pta.  
Aurrera**

*J. Larranaga*  
OPTIKA

**MULTIOPTICAS**  
Beti Zuri Begira Vd.



BERGARA ARRASATE ORDIZIA  
76 15 75 79 29 95 88 99 88



**Gero eta herritar gehiago dira jaietan aldegiten dutenak. Zaratatik ihesean, eguzkiaren bila doa jendea Pazkuetan.**



## Jaiak kanpoan

Salou eta Sevilla dira nagusiki Bergarako jaiak kanpoan igaroko duten bergarrek aukeratutako tokiak. Ajentzia ezberdinek, azken urteotako ohiturari eutsiz, aurtan

ere oferta erakargarriak kaleratu dituzte.

Horrela, Helduentzako Heziketa Iraunkorreko zentruak, EXPOa aprobetxatuz, Sevillara joateko bidaia antolatu du;

### Herria uztearen alde

Badira juergak eta lagunekin egun majoak pasatzeko fetxa egokiagoak hauek baino. Aldiz, trankilidade osoz leku berriak ezagutzeko aukera paregabea aurkezten zaigu; mendia, hondartza... edozein paraje aitzakitzat hartu eta urte garai honetan asko komeni zaigun atsedenaldi bat hartzea ez da gutxi.

Gainera, jaigiroa beheraka doala eta ekaina, jaietarako baino, azterketak egiteko sasoia izan dela beti kontutan hartuz, ospakizunak geroko lagatzea ere ez da ideia txarra.

Martxa honetan, Arrasate eta beste zenbait herritan bezala, hemendik pare bat urtera lau katu baino ez dira bertan geldituko. Egia esan, nik ere gogo gutxi izaten dut barraketan ibili edota tragu bat hartzarren jendearekin burrukan ibiltzeko.



Jose Alberto Eguren

**PAZKUAK 92**  
Bergarako jaiak

## Gori-gorian

40 bat lagun joango zaizkigu, autobusez, Andaluziara eta estantziaren arabera, eta EXPOko sarriera barne, 20.000-25.000 pta. tan irtengo zaie bidaia.

Ecuadorrek ere 25 bat herritar eramango ditu Sevillara, trenean eta 40.000 pta. gatik, EXPOak eskeintzen dituen *marabillak* ikusteko oferta erakargarriekin.

Hala ere, Salouk jarraitzen du aukera arrakastatsuen izaten. Lau egun pentsio osoko hotolean, Zurichekin edota Eroskirekin doazenek

15.000 pta. inguru ordaindu beharko dituzte eta bi ajentzia hauek 5 autobus (250 pertsona inguru) bete dituzte bien artean, kotxe partikularretan ere jende dexente joango delarik.

Edade ezberdinetako jendea apuntatu da bi bidaiotara baina Sevillara Saloura baino jende gazteagoa doa. Hala ere, besteetan bezala, eguzkitan egotea bilatzen duten matrimonioak eta zaharrak gehiengoak izango dira. Eguzkitan batzuk, ilargipean herria girotzen geratuko direnak.

### Uztearen kontra



Jose Antonio Kortabarria

Sekulako ambiente polita egoten da urtero eta ni jaiak hemen pasatzearen aldekoa naiz, duda barik.

Batez ere astelehena eta asteartea gustatzen zaizkit, astebukaerako *inbasioa* pasa ondoren. Orduantxe izaten dira benetako jaiak, lasaitasunez eta lagun artean primeran pasatzeko egunak.

Badira urtean eguzkia eta hondartzaz gozatzeko aukera gehiago. Orain, jaigiroan, eguneroko bizitza ahaztu eta disfrutatzeke garaia da ta. Non hemen baino hobeto?

**AFA - BI**

**Manufakturak, S. L.**

P.V.C. Arozgintza eta aluminioa

Veka Sistema (Alemaniarra)

San Lorentzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 BERGARA

*Josefina*

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, Solariuma, perikura, estetika.

Espaloia 4, Tfnoa: 76 35 38

**M 2**

**Errotuloak**

Tfnoa: 76 57 93

**Bergara**



**ETXE  
AUNDI**

Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
ONATI

**FS**  
oto sistema

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodeako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

## Jaietan herrian bertan ala kanpoan?



**Asier Gabilondo**  
18 urte, ikaslea

Txikitari nahiago nuen alde egitea baina orain jaiak disfrutatzea gustatzen zait.




**Mari Karmen Belategi**  
34 urte, langilea

Jaiak ez didate grazia haundiegirik egiten eta Pirineotara joango naiz. Lehen asko gustatzen zitzaidan...



**Rosa Zabaleta**  
38 urte, langilea

Herrikan kanpo lan egiten dut, beraz astebukaeran bakarrik irtengo naiz, jaiak gustoko ditut.



**Iñaki Gabilondo**  
48 urte, langilea

Herriko jaietan bertan geratzea gustatzen zait, nahiz eta egunen batetan mendira irteeraren bat egin.

## OSTELERITZARAKO OIHALAK



San Lorentzo, Tfnoa: 76 17 09

**ezpeleta  
etxea**

**Etixerako oiahalak**

Barrenkale 44



**C'est  
la vie!!**

Azkenean iritsi zen joan zen asteko asteazkena, 27 M-a: inork ez zuen lanik egin, "paroa" erabatekoa izan zen baina gutxik egin zuten huelga.

Italian bi albiste nagusitu ziren: Indurain maglia arrosaren jabe egin zen; Giovanni Falcone epailea hil zuten.

Izan dira beste albiste batzuk ere: Bosnia-Herzegovina, Eslovenia; Ibilaldia, euskeraz gutxik hitzezin bazuen ere, jendetza izugarria bildu zuen festa; Radio Futura hirukotearen agurra; Salto del Negroko presoaren gose greba eta larunbaterako manifestazioa, baina hau 6. edo 7. mailako notizia da nonbait, ia ohiartzunik ere ez du izan eta.

Ah! Barkatu! Bat ahaztu zait! Ederra egin dut: komunikabideetan hilaren 29an jaun eta jabe izan zen notizia ia ez dut aipatu: Estefania haurdun dago, guardaespaldas omen da haurraren aita...

Hau da marka! Nik, idazle frustratu honek, ez dizut komentatu asteko arrosakeria: batzuk erraldoi bihurtu eta denok irakurri eta ahotan ibili ditugun kontu txikia.

En fin, c'est la vie!!

**Ione Larrañaga**



**Musikaz  
plai!!**

Galizako lagun bat ikusten doten bakoitzian hauxe galdetzen dosta: "¿Qué, cómo siguen los conciertos?". Eta nik: "ba, beno, ezin ga keja". Kejatzeko moduan.

Mundua zabala da ta gu herri txiki batian bizi ga baina beste kontu askotan moduan, nahi dogunian, ondo gordezten eta uztaizten ditugu guriak eta kanpotik jasotako ohiturak.

Azken hamarkada honetan gure artian musikak izan daben bilakaera kontutan hartzekua da. Hasierako sorpresa eta indarretik gaur egungo elegantzia eta aukera zabalera pasau ga, gitarra afina eta ideiak argitu diren bitartian.

Bergaran, berriz, ze gertau da.

Frontoiko makrokonzertu haizetatik gaztetxeko minikonzertuetara juañ gifañ, honen ostian diskoteka erraldoi bat jarri zoskuen Sanjuanen eta hasieran konzertu bat edo beste entzun bagifuan be, bukaera aldera kriston aukera polita izan gifuan etxian bertan. Azkenian hori be juañ jakun, panorama trisitia guria! Baina hara nun gaztetxia indar berri eta musika lokala entzuteko lekua berreskuratu dogun. -Itxi?-

Bestalde, lehen musikan basamortua zana piztu ein da eta baditugu herrixan talde batzu, long live to rock!

**Joxe Lazkano**

**Zuhaizti**

**JAIETAN**  
goizeko 6etan  
zabaltzen dugu

**JAIK ondo  
pasau!!**

Espalola 6, Tfnoa: 76 59 22

**ESPOLON**



**School of English**

Ibargarai 31, Tfnoa: 76 03 53

**92-93 IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK,  
LEHENGO IKASLEENTZAT ZEIN BERRIENTZAT.**

Argibide gehiago: Astelehenetik ostiralera 10etatik-12.30etara  
eta 15etatik 16etara.

**Zorionak & happy jaiak!!**

# Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

# ARDATZA

*Brikolaketa*

**ATEAK  
eta  
HORMA  
ARMAIRUAK**

Mahasterreka 4  
☎ 76 18 93

# ANDUZU

**ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA**


- Azulejo erakusketa
- Onduline
- P.V.C.
- Blokeak
- Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

# Hagin klinika

*Idoia Iriarte Irureta*

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65



## Atleta onak, ikasle hobeak

ASPACE zentruan ikasten diharduten ikasle hauek ere Gutxituen Espainiako Atletismo Txapelketan izan genituen astebukaeran Gijonen. **Jesus Mari Del Amo** izan zen domina lortu zuen bakarra baina **Nerea Egaña, Iñigo Illarramendi, Miguel Angel Gomez eta Agustin Toledok** ere proba bikainak burutu zituzten. Guztiak primeran pasa zuten eta, horrez gain, Jesus Marik Paraolimpiadetarako txartela lortu zuen sari gisa. ZORIONAK guztioi eta eutsi afizoari!!

## Sprintean

**Aitor Larrea Sumofic**  
Lokatza taldeko txirrin-  
dulariak Gipuzkoako 1. go  
urteko jubenilen txapelketa  
irabazi zuen larunbatean  
Aretxabaletan. 16  
urterekin, antzuolar honek  
iazko txapeldun izan zen  
**Gorka Marzan** ordezkatu  
du podiumean eta, bide  
batez, bere progresioa  
baiezatu du. Larunbatean  
helmugara aurreratuta  
heldu zen, taldetxo bateko  
azkarrena izan genuen  
sprintean eta hor duzue,  
txapela, kopa eta txapeldun  
magliarekin. ZORIONAK!!



**alga**

Usaindegia.

Eder-gela. Oparigaiak.

Zorionak!!

IBARGARAI 10 Tfnoa: 76 00 85

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA  
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

□ **Argazkilariak**

Epaimahaiak jakitera eman ditu jadanik **Bergara Hiria Argazki Lehiaketan** saritutako lanak. Koloretan, **Benito Canterok** irabazi du lehen saria eta **Julian Redondo** bilbotarrak eta **Jose Luis Feo** bergararrak bigarren eta hirugarren saria eskuratu dute; zuribeltzean, **Felipe Loiola** eibartarra izan da irabazlea, **Javier Pedro Fdez.** getxotarraren eta **Jose Luis Irigoien** eibartarraren aurretik eta, aipatutako bi kategorietan, **Agustin Gurrutzagarentzat** izan da herritar onenari zegokion saria. *Bergara berezia* izeneko saria berriz, **Jose Luis Feok** irabazi du Errekalde Jauregiko argazki batekin. Pol-Pol Argazki Taldeko argazkilariak ezin hobeto...



Jose Luis Feo (3. saria koloretan).

□ **Gutxigatik**


**Ze pena!!** Argazkian dituzuen **Maite Azpiri, Maite Zabaleta, Lorea Garcia** eta **Ainize Gomez de Segura**, Udal Kirol Zerbitzuko alebin kategoriako korrikalariak, bi segundu hamarrenekogatik ez zuten dominarik lortu larunbatean Anoetan jokaturako Gipuzkoako Atletismo Txapelketan. Azkenik, *photo-finisha* aztertu ondoren, laugarrenak izan



genituen 4x60 errelebotako proban 36 segundu eta 6 hamarrenekoko marka bikainarekin. Bi hamarreneko sobran eta dominak... hurrengo baten heldu


**Zertan dihardute ba?**

**AINHOA AGIRREAZALDEGI**



Iaz bezala, 14 (?) urteko bertsolari gazte honek aurtengo Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finalean parte hartuko du larunbatean, goizeko 11tan, Donostiako Karmelo Balda pelotalekuan.

**SASKIBALOI TALDEA**



Hirugarren mailarako igoera lortu arren, senior gizonetzkoen saskibaloi taldea desagertzeko arriskuan dago, baldin eta taldearekin kolaboratzeko prest dagoen jendea azaltzen ez bada.



**ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA**

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

## Umore giroan

### Bedar txarren bat jan

Orbeaneko fabrika, "Otua"kin biarra egiten zeban "Kuixa" gatzizena zeukan beste eibartar batek.

Egun baten, "Kuixa" gaixorik zeguala eta, esan zetsan "Otua"ri kontramaixuak:

- I, "Otua", "Kuixa" gaixotu dok eta jarri ari makiña onetan bere orde.

"Otua"n urteeria auxe izan zan:

- Gaixotu ein dala? Zer ba, bedar txarren bat jan jok ala?

\* \* \*

### Diru asko gastau

"Kaporala"k Donostian bete zeban bere soldautza denporia. Ez zeban oso gaizki pasau, ango etxe baten apollo

egon zan eta. Itxura danez, gastu kontuan neurritxik gora zebillen. Orregaitxik, illeko kontua oso aun dixa zala pentsatzen zebalako, bere aita juan zan Donostiara etxekoandre eta semiakin berba eitxera.

- Zelan leike ainbeste diru gasatzia?, esaten zeban Kaporalan aitzak.

Etxekoandriak:

- Badakizu ba, gaztia da ta... asko biar gaiñera, ta...

Kuartuan zeguan semiari deitxu zetsan:

- I, Jazinto, etorri ari ona. Egixa dok diru guzti au, kontuak diñuana, gastau eiñ duala?

Eta Jazintok, mantso-mantso, sosiguz-sosiguz, bere oitxura zan lez:

- Zu aitxa, Jo-se-pak ez-tau se-ku-la gu-zu-rrik esan e-ta au be egi-xa izan-go da.

**Pedro Zelaia**

## Antzinako kontuak

### Bergarako hiri morfologia Erdi Aroan: bedadura

Kasu askotan hiri barneko espazioa estua da eta gehienetan orubeen neurriko etxeek betetzen dute.

Hedadura hau, orubetan zatituta, hiriko biztanleen artean banatzen da, honela famili edo su bakoitzari, bere etxea eraikitzeke hiri orubea ematen zaio.

Beatriz Arizagak dio antzinako orube gipuzkoarrak 8 x 12 metrotakoak zirela (aurrekaldea x alboaren luzera). Honen arabera, hektarea batetik 50 orube sortuko litzateke.

Datu hauek eta Bergarak 4,6 hektarea duela kontutan harturik, 230 orube inguru izango zirela kalkulatu du.

XV-XVII. mendeetan hiri barnean dorretxeak eta jauregiak eraiki zirenean, ez ziren orube berrieta egingo baizik eta lehenagoko orubeetan, bat, bat et'ardi edo bi erabiliz horretarako. Beraz, hiriko hasierako eskemak



aurrera egiten du baina orube bat baino gehiagotan etxebizitza bakarria egongo da.

Kasu nabariena Barrenkaleko Arostegi eta Izagirre-Moia dira. Bakoitzak orube bat betetzen du.

Prozesu berbera eman zen hiria zabaldu eta errebalak sortu zirenean. Alde honetan hiriko orubeen neurri berdinekoak egingo dira eta bakoitzak etxe bat izango du.

Dorretxeek eta Jauregiek ere lehengo orubeak beteko dituzte baina, hiri barnean ez bezela, hemen bat et'ardi edo orube bikoak izango dira. Hala eraikiak dira: Olaso etxea eta dorrea, Ondartzako etxea eta dorrea, Moia etxea (Valdespinako markesen etxea), Jauregi etxea eta jauregia...

**A. Barrenetxea**



**Gizon**

**Emakume**

**Barrenkale 35**

**Irala 2**

**BERGARA**



Ixone Orobengoak jaso du aste honetan ZUBIKOAK emandako saria.

**Urzelay**  
HARATEGIA

Ibargarai 16, 76 00 45 / 76 37 77

Hurrengo Galde Debaldeko saria  
URZELAY HARATEGIAK emango  
du.

# Galde debalde

## Aste honetako galdera:


Bergarako jaiak, Pentekosteak, harantz eta honantz mobitzen dira kalendarioan Aste Santuaren arabera. Hor doa aste honetako galdera:

Zela kalkulatzen da urte bakoitzean noiz den Aste Santua eta horren arabera Bergarako Pentekoste jaiak?



Izena \_\_\_\_\_ Abizena \_\_\_\_\_ Tfnoa \_\_\_\_\_

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta karta bereziak ditugu  
Betiko eta oraingo sukaldaritza**

**ARGAZKI**

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



## *Galde debalde*

**Ixone Orobengoa**

Plateresko (Errenazentista) estilokoa da Angiozarko San Migel eleizaren ataria. Horixe zen aurreko Galde Debaldeko erantzun zuzena eta **Ixone Orobengoa** irabazi du **Zubikua** Jantzidendak emandako **SARIA**.

**ZORIONAK irabazleari!!**

**Eta besteok animatu, eta erantzuna eman  
aste honetako galderari!**

**Urcelay**  
HARATEGIA

**GURE BASERRIAN  
HAZITAKO TXAHALAK**

**Etxean egindako txorizo,  
saltxitxa, odoloste, e.a.k**

Ibargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77

**Zubikua**

**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



## Bergarak Rotetaren aurka jokatu- du preferentera igotzeko promozioa

Ligako azken partiduan Lazkaoren aurka 2 eta 3ko emaitzarekin galdu ondoren, Bergarako futbol taldeak preferentera igotzeko promozioa jokatu beharko du Donostiako Roteta taldearen aurka.

Larunbatean Agorrosinen gauzak oso ondo hasi ziren bergararentzat, Arregik lortutako gol bikain bati esker 1 eta 0 aurreratu eta Lazkaok jokalaria bat galdu baitzuen expulstatuta. Bigarren zatian berriz, Alvarez epaileak penalti eztabaidagarrri bat pitatu zuen Lazkaoren alde; penaltia sartu eta jarraian beste gol bat lortu zuen Lazkaok. Epaileak, konpentsazio legea jarraituz, Bergararen aldeko penaltia seinalatu zuen baina Arregik huts egin zuen. Partidua amaitzeko 8 bat




minutu falta zirela, beste penalti bat izan zen Bergararen alde, Pelaiok berdinketaren gola lortuz. Hala ere, lazkaotarrrek aurrera egin zuten eta, partidua amaitzen zegoenean beste gol bat ere lortu ere, bergarar jarraitzaileen etsipenerako. Arregi entrenatzailearen ustetan, "lehendabiziko 60 minutuak geure-

ak izan dira eta partidua erabakitzeke aukera garbiak izan ditugu. Penaltia ezkeroztik, kontrol barik jokatu dugu". Orain Rotetaren aurka jokatu du Bergarak hilaren 14 eta 21ean, "talde gogorra eta afizioa ere oso zaratsua da, nekeza izango da". Asteartean, partiduen ordena erabakitzeke zozketa egingo da.

□ **Bilera**  
Datorren asteazkenean, hilak 10, Udal Kirol Eskoletako arduradunen bilera izango da arratsaldeko 7etan Kultur Etxean, datorren urteko kirol programazioa zehazten hasteko.

□ **Proiektzioa**  
Anton Gutierrezek Euskal Bizikletaren inguruan egindako audiobisual bat eskeiniko du asteazkenean, hilak 10, arratsaldeko 8etan Kultur Etxean.

□ **Txapeldunak**  
Bergara K.E.ko 2. mailako kadeteen futbol taldeak Federazioaren Kopa eskuratu zuen larunbatean Zumaian, Donostiako Aldapetari 4 eta 2 irabazi ondoren.



## Txapelaren atzetik

Datorren asteazkenean, hilak 10, Elgetako 4,5ko Pelota Txapelketaren afizionatuen final aurreak jokatu dira bertako pelotalekuan, gaueko 10etan. Joan den astean final laurdenetako partidu bikainak jokatu ondoren, final aurreak honela geratu ziren: Balerdi-Coca eta Nagore-Beloki (iazko txapelduna). Oskarbi Elkartearen antolaketa eta 1.700.000 pta. inguruko aurrekontuarekin, afizionatuetan 103 eta kadeteetan beste 57 pelotarik parte hartu izan dute. Azken 16 urteotan bezala, ekainaren 19an jokatu diren finaletan ez txapeldun makalik izango.

**DENA 100**  
pzta.tan  
Ireki berria  
SIMON ARRIETA 3an

**Euskalduna**  
**Taberna**  
**OSINTXU**

**LETE**  
**TOLDOAK**  
Kataide Pol/Ind. 14. Pab.  
☎ 79 23 83 ARRASATE  
☎ 76 12 24 BERGARA  
☎ (94) 681 76 19 IURRETA



*1.967ko  
Bergarako  
jaiak.  
Estanpa  
Lehiaketa.  
Madurako  
lagunak.*

*Estepan Plazaola  
Argazkia: Joakin Ostolaza*

**K** Aurtengo jaietan Udalak estanpa lehiaketa berpiztu nahi izan du baina, antza denez, behar adina jende ez da animatu. Lehenago ere argitaratu izan ditugu Berrigararen estanpen argazkiak eta oraingoan ere halako bat dakargu.

1967. urteko jaietan izandako estanpa lehiaketakoa da eta bertan Madurako lagun talde bat agertzen zaigu. Hona zeintzu diren, aurretik atzera:

1. **ilaran:** Jose Garate (Recalde), Joakin Ostolaza (semea), Jose Mari Laskurain (Txiki).
2. **ilaran:** Maria Teresa Anduaga, Elkorro (Guillin), Kruz Beitia (Zumaketa), Mugarri, Areitio, Joakin Ostolaza (aita), Jabier Igarza.
3. **ilaran:** Juanito Etxeberria, Jose Maria Zubizarreta, Luis Maria Etxaniz, Jabier Portu eta Garmendia.
4. **ilaran:** Jose Gonzalez, Juan Mari Mendizabal, Maria Jesus Olabarria, Jose Mari Aretxaga, Arzelus eta Elkoroberezibar.
5. **ilaran:** Inazio Etxaniz.



*jolas*



**Jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!!**

BARRENKALE 27

**ETXEBIZITZA**

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Etxebizitza salgai Artzamendin. ☎ 76 10 10 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Pisua salgai Donostian (Amaran). Sukaldea, 2 gela, saloia eta bainu gela. ☎ 45 81 56 (eguerdian)

Bi apartamentu alokatzetan ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Apartamentua alokatzetan da (garaje eta guzti) Jakan. ☎ 76 43 98.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gaez.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Garajea salgai. ☎ 76 23 38.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua salgai: bigela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. ☎ 76 49 71.

**SALDU-EROSI**

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

Mendiko bizikleta salgai, MENDIZ markakoa, Shimano Deore-rekin ekipatua. ☎ 76 49 56 (gaez).

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak teklista bat behar du. ☎ 73 01 17.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiao-tomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

Bigarren eskuko espainiar kitarra erosiko nuke. ☎ 76 44 65.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Mendiko bizikleta (hiru koloretako MBK) galdu zait Mahasterrekako etxe berrietako garajea. Topatzen duenak dei nazala mesedez. ☎ 76 25 45.

Erosiko nuke ingeleseko kurtsoa, liburu eta kasetzkoa. ☎ 76 34 16.

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. Manuala eta automatikoa. Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

3 ateko AX GT-ko baka bat salgai. ☎ 76 24 81, iluntzeko 8etatik aurrera.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitora, 3 pulgadako disketera, 30 joku. 35.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

**LANA**

Bajua jotzen ikasteko klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 17 85.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Mutil batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

**Hildakoak**

*Mario Olalde Gallastegi*  
ekainaren 1ean, 84 urte

**Jaiotakoak**

*Amaia Santamaria Andres*  
maiatzaren 26an  
*Obiane Irureta Jauregi*  
maiatzaren 28an

**AUTOPULLMANS ARABA****Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

**ELEKTRO**

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,  
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,  
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

# HALTZARI

**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Harane Erreka 4  
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



**FAGOR**

SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6 URTEKO GARANTIA**

# JAKINA

**BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK**



MANGADO  
VOCHOA

ZERAMIKA ETA SANITATE GAIK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorentzo Poligono Industrialra, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxe; 76 02 91. BERGARA